

II - ARABAKO LURRALDE
HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

LEGUTIOKO UDALA

Estaturako gaikuntza duten toki administrazioko funtzionarioentzat gordetako Legutioko Udaleko idazkari-kontuhartzaile lanpostua betetzea

Kontuan hartu behar da idazkari-kontuhartzailearen lanpostua bete beharko dela hutsik geratu delako.

Estaturako gaikuntza duten toki administrazioko funtzionarioen araubide juridikoa arautzen duen martxoaren 16ko 128/2018 Errege Dekretuaren 48. artikulua eta hurrengoak ikusi dira. Horiek horrela, hau

EBAZTEN DUT

Lehenengoa: prozedura abiaraztea Arabako Foru Aldundiari proposatzeko izenda dezala estaturako gaikuntza duen toki administrazioko funtzionario bat Legutioko Udaleko idazkari-kontuhartzaile lanpostua betetzeko, Estaturako gaikuntza duten toki administrazioko funtzionarioen araubide juridikoa arautzen duen martxoaren 16ko 128/2018 Errege Dekretuak 49., 50. eta 51. artikuluetan jasotako moduetakoren batean.

Bigarrena: hamar egun balioduneko epea hastea, iragarki hau ALHAOn argitaratzen denetik, bete beharreko lanposturako hautagaiek parte hartzeko eskaerak aurkezteko, eranskin gisa doan ereduan eta adierazten diren agiriak erantsita.

Estaturako gaikuntza duen toki administrazioko funtzionario bat izendatuko da, eta lehen-tasuna izango dute lanpostuaren azpieskala bereko hautagaiek.

Eskaerak aurkezteko epea amaitu baino lehen argitaratutako merezimenduen azken baremo orokorraren arabera ezarriko da lehentasuna egoera bakoitzean.

Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legean ezarritako moduetako edozeinetan aurkeztu ahal izango da idazkia.

Hirugarrena: hautagaien lehentasun ordena ezarri ondoren, eta Legutioko Udalak izenda-pena hurrenkera horren arabera egitearen aldeko txostena eman ondoren, hautagai bakoitzari eskatuko zaio, hurrenez hurren, aurkez dezala destino duen toki erakundearen aldeko txostena eta kasu bakoitzean eskatzen diren gainerako txostenak, hamar egun balioduneko epean eta aipatutako artikuluen arabera.

Laugarrena: hautagairik aurkezten ez bada, aurrera egingo du Estaturako gaikuntza duten toki administrazioko funtzionarioen araubide juridikoa arautzen duen martxoaren 16ko 128/2018 Errege Dekretuak 52. eta 53. artikuluetan xedatutako prozedurak.

Bosgarrena: udalbatzari ebazpen honen berri ematea egiten duen hurrengo bilkuran.

Seigarrena: lanpostuaren ezaugarriak.

Izena: idazkari-kontuhartzailea.

Lan harremana: estaturako gaikuntza duen funtzionarioa.

Eskala: estaturako gaikuntza.

Azpieskala: idazkaritza-kontuhartzailletza.

Taldea: A1/A2.

Destino-osagarria: 26.

Berariazko osagarria: 26.588,65 euro.

Hizkuntza eskakizuna: 3, derrigortasun datarik gabe.

Legutio, 2024ko martxoaren 12a

Alkatea

NEREA BENGUA GARCÍA DE CORTAZAR

ERANSKINA

Nik, jaunak/andreak (NANa:.....; jakinarazpenetarako helbidea:.....; telefono zenbakia:.....; Estatutako gaikuntza duen toki administrazioko funtzionarioa, azpieskalakoa; gaur egun..... lanpostuan, toki erakundean, (e) k egindako izendapenaren bidez; lanpostuaren jabetze data: / zerbitzu aktibora itzultzeko egoeran –lankidetzat lanpostuak kentzeagatik / izendapen askeko lanpostua uzteagatik–)

ADIERAZTEN DUT

Jakin dudala Legutioko Udaleko idazkari-kontuhartzaile lanpostua hutsik dagoela, eta behin-behineko izendapen bidez betetzeko aukera dagoela, zerbitzu eginkizunetan edo zereginen pilaketagatik.

Betetzen ditudala lanpostu horri dagozkion eginkizunak behar bezala betetzeko eskatzen diren baldintzak, eta, beraz, indarrean dagoen legeriaren arabera eta dagozkion izapideak betez, hau

ESKATZEN DUT

Legutioko Udaleko idazkari-kontuhartzaile lanpostua behin-behineko izendapen bidez, zerbitzu eginkizunetan / zeregin pilaketagatik (ezabatu soberan dagoena), betetzeko prozeduran parte hartzea.

Honako hauek eransten dira:

- NANaren fotokopia.
- Estatutako gaikuntza duen toki administrazioko funtzionarioa naizela egiaztatzen duen agiria.
- Lanpostua zereginen pilaketagatik eskatuz gero, zereginen pilaketengatik izendapenik ez dudala adierazten duen erantzukizunpeko adierazpena.

....., 2024koaren(a)

Sinadura